



Berrobi

UDALBATZARRERAKO DEIALDIA

Berrobiko Udalak 2015ko abenduaren 21ean iluntzeko 20:30etan Udaletxeko Pleno Aretoan egingo duen Ezohiko Udal Batzarrera dei egiten dizut.

AZTERGAIAK

1) 2015ko aurrekontuari dagokion 1/Kreditu Aldaketa onartzearen proposamena.

Berrobi, 2015ko abenduak 15

ALKATEAK
Izp.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika

CONVOCATORIA PARA EL PLENO

Convocatoria para la Sesión Extraordinaria del Ayuntamiento de Berrobi, que se celebrará en esta Casa Consistorial el día 21 de diciembre de 2015 a las 20:30 horas.

ORDEN DEL DIA

1) Propuesta de aprobación de la modificación de créditos 1/2015 del Presupuesto 2015.

Berrobi, a 15 de diciembre de 2015

EL ALCALDE
Fdo.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika





Berrobi

UDALBATZARRAREN AKTA

Data: 2015ko abenduak 21

Hasierako ordua: 20:30

Amaiera ordua: 20:55

Lekua: Berrobiko udaletxeko Batzar-aretoa.

Bertaratuak:

Joseba Iñigo Aiertza Mujika, Alkatea
Agurtzane Belaunzaran Saizar
Jose Odriozabala Garmendia, zinegotzia
Erlantz Allur Aramburu, zinegotzia
Igone Saldias Uranga, zinegotzia

Ana Larrarte Kerejeta, idazkaria.

Alkateak bilerari hasiera eman eta idazkariak azaltzen du maiatzaren 24ko Udal hauteskundetan hautatua izan zen Agurtzane Belaunzaran Saizar zinegotzi kargua hartzea dagokiola. Hautagaiak alde zuzenetik emandako egiaztatzea, hau da, hautaturiko zinegotziaren nortasun egiaztatzea, eta mahaikideak Zonalde honetako Hauteskunde Batzordeak bere garaian Udalera igorritako ziurtagiriarekin frogatu eta ondo dagoela adierazten du idazkariak.

Jarraian, Idazkariak Hauteskunde Orokorreko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedetutakoaren arabera, hautatuari ondorengo galdera egin die: “Hitz ematen al duzu ohorez eta kontzientziaz, Berrobiko Udaleko zinegotzi kargua dakarkizun betebeharrak zintzo beteko dituzula Erregearekiko lehialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatua Estatuaren oinarritzko arau gisa errespetu eta errespetatuaraziko dituzula?”

Ondoren, honek ondorengo erantzunak eman zituen:

- “ Legeak aginduta, hitza ematen dut”.

Aurrekoa eta gero, zinegotzi hautatuak bere karguaren jabetza onartzen du.

Jarraian gai-zerrendako puntuei heltzen zaie.

Esan-eginak eta erabakiak



Berrobi

1) **“KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2015-KALD-000004-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzarak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoaz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	16.660,20
2	ONDASUN ARRUNTEN ETA ZER. OROK.	25.847,89
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	3.362,00
6	INBERTSIO ERREALAK	12.072,00
9	FINANTZA PASIBOAK	112,03
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		58.054,12



Berrobi

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
1 (GASTUAK)	PERTSONAL GASTUAK	(-)4.387,64
2 (GASTUAK)	ONDASUN ARRUNTEN ETA ZER. OROK	(-)29.700,00
2 (SARRERAK)	ZEHARKAKO ZERGAK	1.417,73
4 (GASTUAK)	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	(-)12.000,00
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	10.548,75
GUZTIRA		58.054,12

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Eta beste gairik gabe Udalbatza bukatutzat ematen du Alkateak, eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin nik Idazkariak, agiri hau egiten dut Alkatearen oniritziarekin.

ALKATEAREN
O.E.



IDAZKARIA